# MIGRACIÓN Y DESPLAZAMIENTO DE LAS PERSONAS POR CAUSAS AMBIENTALES

# INGURUMENAK ERAGINDAKO PERTSONEN MIGRAZIOA ETA LEKUALDATZEA



El cambio climático está afectando la vida de las personas, comunidades y pueblos, obligándolas, en muchas ocasiones, a abandonar sus hogares y lugares de origen.

La exposición *Migración y desplazamiento de las personas por causas ambientales* muestra esta realidad y denuncia los peligros y las amenazas que sufren especialmente las personas que defienden el medioambiente y los derechos humanos.

Ante esta situación, la legislación internacional no protege a las personas desplazadas o migradas y no contempla el derecho de asilo por causas ambientales. La exposición pone de manifiesto la necesidad de cambiar la norma actual para garantizar los derechos humanos de estas personas.

Organiza: Herriarte e Instituto de Derechos Humanos de Cataluña – IDHC

Klima-aldaketak pertsonen, komunitateen eta herrien bizitzari eragiten dio, sarritan euren etxeak eta jaioterriak bertan behera uztera behartzen ditu eta.

*Ingurumenak eragindako pertsonen migrazioa eta lekualdatzea* izeneko erakusketak errealitate hau erakusten du eta ingurumenaren nahiz giza eskubideen aldeko lanean diharduten pertsonek pairatzen dituzten arrisku eta mehatxuak salatzen ditu.

Egoera honen aurrean, nazioarteko legeriak ez ditu lekualdatutako edota migratutako pertsonak babesten, eta ez du aurreikusten ingurumen arrazoiengatiko asilorako eskubidea. Erakusketak agerian jartzen du gaur egungo araua aldatzeko premia, pertsona hauen eskubideak bermatzea helburu.

Antolatzailea: Herriarte eta Kataluniako Giza Eskubideen Erakundea.

1

# LA MIGRACIÓN POR MOTIVOS AMBIENTALES

La alteración del entorno natural es una de las causas principales de la migración de las personas.

Cada año millones de seres humanos abandonan sus países por causa de la degradación de sus hábitats naturales y pierden los medios de subsistencia y los mecanismos de apoyo social.



Ante esta situación, las instituciones internacionales no ofrecen todavía alternativas eficaces para estas personas.



# INGURUMENAK ERAGINDAKO MIGRAZIOA

1

Inguru naturalaren alterazioa pertsonen migrazioaren arrazoi nagusietakoa da.

Urtero-urtero milioika gizakik, euren habitat naturalen degradazioaren eraginez, bertan behera uzten dituzte beren herrialdeak eta, horren ondorioz, bizirauteko baliabideak, baita gizarte-laguntzarako mekanismoak ere, galtzen dituzte.





Egoera honen aurrean, nazioarteko instituzioek ez dute oraindik pertsona hauentzako alternatiba eraginkorrik eskaintzen.





# CAUSAS DE LA DEGRADACIÓN AMBIENTAL

2

En algunos casos la degradación ambiental está causada por desastres naturales.

En otros, la mayoría, la degradación ambiental es producto de la acción humana, como la deforestación, la minería, el crecimiento de la urbanización, el aumento de las actividades agrícolas, ganaderas y de la actividad pesquera y la contaminación de acuíferos, es decir, depósitos subterráneos de agua.



También las actividades industriales y comerciales incontroladas contaminan y provocan que aumente el calentamiento global.



# INGURUMENAREN DEGRADAZIOAREN ARRAZOIAK

2

—

Kasu batzuetan ingurumenaren degradazioa hondamendi naturalek eragindakoa da.

Baina kasu gehienetan ingurumenaren degradazioa giza-jardueren ondorioa da. Adibidez, deforestazioa, meagintza, urbanizatzearen hazkundea, nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren arloetako jardueren ugaltzea, baita akuiferoen kutsadura, alegia lurpeko ur biltegien kutsadura ere.

Kontrolatu gabeko industria- eta merkataritza-jarduerek ere berotze globala areagotzen dute.



# CONSECUENCIAS SOBRE LA VIDA DE LAS PERSONAS

3

—

La degradación ambiental afecta directamente a la vida de las personas y causa principalmente:

- La destrucción de los medios de subsistencia de las poblaciones, porque se dañan gravemente los ecosistemas y el medio ambiente y aumenta la desertificación.
- El aumento de la pobreza, el surgimiento de conflictos armados y el desplazamiento y la migración masiva de la población.
- La extinción de especies animales y vegetales, además de provocar la pérdida de biodiversidad, afecta la salud humana.
- El aumento de enfermedades, más graves en mujeres y población infantil, y de la mortalidad.



# ONDORIOAK PERTSONEN BIZITZAN

3

Ingurumenaren degradazioak pertsonen bizitzari zuzenean erasaten dio eta zera eragiten du batik bat:

- Herrien bizirauteko baliabideen suntsiketa, izan ere, ekosistemak eta ingurumena era larrian kaltetzen dira, baita basamortutzea areagotu ere.
- Pobrezia areagotzea, gatazka armatuen sorrera eta populazioaren lekualdatzea nahiz migrazio jendetsua.
- Animalia- eta landare-espezieen suntsipenak, bioaniztasuna galarazteaz gain, giza-osasunari eragiten dio, gaixotasunak eta hilkortasuna, are larriagoak emakumeengan eta haurrengan, ugalduta.



# MÁS PELIGRO PARA PERSONAS DEFENSORAS DEL MEDIOAMBIENTE

4

Ante los efectos destructivos de la degradación ambiental, muchas personas se dedican a defender el medio ambiente, el ecosistema y los recursos naturales de todas.

La acción de defensa de derechos humanos básicos no está exenta de peligros y amenazas. Las personas defensoras del medio ambiente han de hacer frente muy a menudo a:

- La criminalización por parte de los gobiernos que, a veces, supone el enjuiciamiento y el encarcelamiento injusto.
- Las campañas de descrédito por parte de algunos medios de comunicación y de grupos empresariales que acaparan o dañan los recursos naturales y los territorios de las comunidades.
- Las amenazas, agresiones físicas, desapariciones, torturas y asesinatos sobre las personas defensoras y también sobre sus familiares y comunidades.

Para protegerse de estas amenazas, las personas defensoras han de abandonar sus hogares y comunidades, e incluso migrar a otros países. Esto hace que tengan que separarse de sus familias, que pierdan sus bienes y tierras y que sufran otros peligros en su huída.

Las mujeres defensoras se encuentran en una situación de mayor riesgo, por el simple hecho de ser mujeres. La discriminación, las violencias ejercidas sobre ellas y la falta de apoyo, hacen que las consecuencias de las amenazas para las mujeres sean más graves que para los hombres.



# ARRISKU HANDIAGOA INGURUMENAREN BABESLEENTZAT

4

Ingurumenaren degradazioaren ondorio suntsitzaileen aurrean, pertsona askok ingurumenaren, ekosistemaren eta guztion baliabide naturalen alde egiten dute lan.

Giza eskubide oinarrizkoen aldeko ekintzak badauzka bere arriskuak eta mehatxuak. Ingurumenaren babesleek sarritan honakoari egin behar diote aurre:

- Gobernuek kriminalizatzea, eta beronen ondorioz batzuetan epaitua izatea, baita  bidegabe espetxeratua ere.
- Baliabide naturalak eta komunitateen lurrak beretzat hartzen edota kaltetzen dituzten zenbait komunikabidek eta enpresa-taldek egindako kanpainak, aipatutako ekintzaileen izen ona galarazte aldera.
- Babesleen eta berauen senide nahiz komunitateen aurkako mehatxuak, eraso fisikoak, torturak eta erailketak.

Mehatxu hauei ihes egiteko, babesleek euren etxe eta komunitateak utzi egin behar dituzte, baita beste herrialde batzuetara migratu ere. Honen ondorioz, etxekoengandik aldendu, ondasunak galdu eta beste arrisku batzuk  nozitu behar dituzte beren ihesean.

Emakumezko babesleak, berriz, are arrisku handiagoan daude emakume izate hutsagatik. Diskriminazioaren, haienganako bortizkeriaren eta laguntzarik ezaren eraginez, mehatxuen ondorioak gaitzagoak dira emakumeentzat gizonentzat baino.



# ACCIONES CONTRA LA DEGRADACIÓN AMBIENTAL

5

La degradación ambiental no es una fatalidad; puede revertirse en parte, adoptando medidas al alcance de los gobiernos, las comunidades y las personas: Garantizar los derechos de la población local sobre la tierra que ocupan.

El arraigo y los conocimientos de la población hacen posible un aprovechamiento más racional de los recursos del territorio y aseguran un desarrollo sostenible y mejor cuidado del medioambiente.

Garantizar a las poblaciones indígenas y a las comunidades locales el acceso a los recursos naturales de la zona para proteger la diversidad biológica y desarrollar soluciones innovadoras basadas en las técnicas tradicionales y el conocimiento del ecosistema local.

Garantizar la participación efectiva para que las poblaciones decidan sobre las medidas que afectan el entorno, y sobre acciones y programa que se llevan a cabo en sus territorios. Cuestiones como: uso del plástico y los combustibles; explotación y uso del suelo; programas de reforestación y de protección de la biodiversidad; la movilidad y el transporte no contaminantes; y, finalmente, los programas de educación ambiental.



# INGURUMENAREN DEGRADAZIOAREN AURKAKO EKINTZAK

5

Ingurumenaren degradazioa ez da ezinbesteko halabeharra. Neurri batean konpondu egin daiteke, gobernuen, komunitateen eta pertsonen eskueran dauden neurriak hartuz: Tokian tokiko populazioak bizi den lurraren gainean dituen eskubideak bermatu.

Sustraitzeak eta biztanleen jakintzak lurraldeko baliabideen atarramentu zentzuzkoagoa ahalbidetzen dute, eta garapen jasangarria nahiz ingurumenaren zaintza hobea bermatzen dituzte.

Herri  indigenei eta tokian tokiko komunitateei bermatu eskualdeko baliabideak eskuratzea aniztasun biologikoa babeste aldera, eta usadiozko tekniketan nahiz bertako ekosistemaren ezagutzan oinarritutako  konponbide berritzaileak garatu.

Parte-hartze eraginkorra bermatu populazioek erabaki dezaten inguruari eragiten dioten neurriez, baita beren lurraldeetan gauzatzen diren ekintzez eta programez ere. Honelako arazoak: plastikoaren eta erregaien erabilera; lurraren ustiapena eta erabilera; oihaneztapenerako eta bioaniztasunaren babeserako programak; mugikortasuna eta garraio ez kutsagarria; eta,  azkenik, ingurumen-hezkuntzarako programak.



# HAY QUE CAMBIAR LAS LEYES PARA PROTEGER A LAS PERSONAS DESPLAZADAS Y MIGRADAS POR CAUSAS AMBIENTALES

6

—

El asilo es un derecho humano universal que obliga a los gobiernos a proteger y asistir a las personas que huyen de su país y no pueden volver, por varias razones y supuestos, como, por ejemplo: la persecución por razones de raza, religión, nacionalidad, opiniones políticas, pertenencia a determinado grupo social, de género u orientación sexual.

La legislación internacional sobre asilo y migración ha quedado desfasada y no contempla como supuestos de asilo las repercusiones y alteraciones en las vidas de las personas provocadas por la degradación del medioambiente.

Este reconocimiento es fundamental para proteger a las personas desplazadas y migradas por motivos climáticos y medioambientales.

Un cambio en la legislación internacional, incluyendo estos supuestos para el asilo, crearía condiciones seguras para el reasentamiento y la reconstrucción de la vida social de las personas afectadas.

Reconocer la importancia que tiene la tarea de las personas y colectivos que defienden el entorno y los derechos humanos de todas las personas mejoraría su protección.



# LEGEAK ALDATU BEHAR DIRA INGURUMEN ARRAZOIENGATIK LEKUALDATUTAKO ETA MIGRATUTAKO PERTSONAK BABESTEKO

6

Asiloa giza eskubide unibertsala da, gobernuak behartzen dituena pertsonak babestera eta laguntzera, baldin eta pertsona hauek euren herrialdeetatik ihes egin eta itzultzerik ez badaukate hainbat arrazoi eta egoera direla kausa, hala nola: arraza, erlijio, nazionalitate, iritzi politiko, talde sozial jakin bateko kide izan, genero edota sexu-orientazio arrazoiengatik.

Asiloari eta migrazioari buruzko nazioarteko legeria zaharkituta geratu da eta ez ditu asilorako kasutzat aitortzen ingurumenaren degradazioak pertsonen bizitzan eragindako ondorioak eta kalteak.

Aitortza hau, ordea, funtsezkoa da klima- eta ingurumen-arrazoiengatik lekualdatutako eta migratutako pertsonak babesteko.

Nazioarteko legeriaren aldaketa batek, asilorako kasu hauek jasoko lituzkeenak, erasandako pertsonen birkokatzerako eta haien gizarte bizitza berregiteko baldintza seguruak sortuko lituzke.

Pertsona guztien ingurua eta giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen eta kolektiboen lanak duen garrantzia aitortzeak beren babesa hobetuko luke.



—

Ilustración: LUCI GUTIÉRREZ
(Barcelona, 1977) ilustradora que trabaja en los campos de la edición, la publicidad y la animación, especialmente en la prensa norteamericana, donde colabora regularmente en el New Yorker, The New York Times y en el Wall Street Journal. Es autora del libro English Is not Easy, publicado en diversos países, y del Manual de Autodefensa.

—

Ilustrazioa: LUCI GUTIERREZ
(Bartzelona, 1977), edizioaren, publizitatearen eta animazioaren arloetan lan egiten duen ilustratzailea bera, batik bat iparramerikar prentsan, bertan aldian-aldian lan egiten baitu New Yorker, The New York Times eta Wall Street Journal egunkariekin. Hainbat herrialdetan argitaratutako English is not easy liburuaren eta Autodefentsarako Eskuliburuaren egilea da.



—

La exposición Migración y desplazamiento de las personas por causas ambientales se enmarca en el proyecto "Protegemos el derecho a defender un futuro para todas en un mundo en emergencia climática y ecológica", desarrollado por la Asociación Herriarte y el Instituto de Derechos Humanos de Catalunya, con la financiación de la Agencia Catalana de Cooperación al Desarrollo.

—

Ingurumenak eragindako pertsonen migrazioa eta lekualdatzea izeneko erakusketa proiektu baten barruan dago, hain zuzen "Larrialdi klimatikoan eta ekologikoan dagoen munduan guztiontzako etorkizuna defendatzeko eskubidea babesten dugu" izeneko proiektuaren barruan. Proiektu hau Herriarte Elkarteak eta Kataluniako Giza Eskubideen Erakundeak garatua da, eta Garapenerako Lankidetzaren Kataluniako Agentziak finantzatua.

Organiza: / Antolatzailea:

herriarte
entrePobos
entrePueblos
entrePobles

idhc
Institut de Drets Humans de Catalunya

Con la colaboración de: / Laguntzailea:

Plataforma Ongi etorri errefuxiatuak Bizkaia

ekologistak martxan

Meatzaldea Bizirik Ekologista Taldea

Con la financiación de: / Finantzaketa:

ACCD Agència Catalana de Cooperació al Desenvolupament

Generalitat de Catalunya

Bizkaia foru aldundia diputación foral



www.**herriarte**.org